

OINARRIAK: Aratosteetako kuadrillen kalejirako lehiaketa

Aratoste zapatu goizean kuadrillen eta familien ilusio eta lanari esker sortzen den jai-giro politari distira eman nahian, Eibarko Udalak kuadrillen arteko desfile-lehiaketa antolatu du.

Lehiaketan parte-hartzeko oinarriak honako hauek dira:

Lehena. Noiz.

Desfilea 2017ko otsailaren 25ean, larunbata, izango da, 13:00etan.

Bigarrena. Parte-hartzaileak.

Gutxienez 10 partaide izan beharko ditu izena eman duen taldeak.

Hirugarrena. Parte-hartzaileen adina.

Adin guztietako pertsonak parte hartu dezakete.

Laugarrena. Gaia eta disfrazak.

Disfrazen gaia librea izango da, taldekideek aukeratuko dute.

Taldekide guztien disfrazek gaiarekin erlazio zuzena izan beharko dute.

Bostgarrena. Izen ematea.

Izena emateko epea **2017ko otsailaren 9an** hasiko da eta **otsailaren 23an** amaitu, 14:30ean.

Lehiaketan parte hartzeko izena emateko bideak:

- Elektronikoki: www.eibar.eus
- Telefonoz: 010 edo 943708400.
- Presentzialki PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Seigarrena. Ibilbidea.

Desfilea 13:00etan hasiko da Untzagan. Ibilbidea honako hau izango da:

Untzaga, Kalbetoi, Julian Etxebarria eta Toribio Etxebarria.

Izena ematen duten taldeek ibilbide guztia egin beharko dute.

Zazpigarrena. Desfilea.

Desfilea hasi baino ordu erdi lehenago (12.30ean) taldeko arduradun bat (bakarrik bat) karpako eszenatokira etorri beharko da desfilearen zenbakia jasotzera. Zenbakia desfilearen ordena adierazteko da.

Banatzen den zenbakia agerian eraman beharko da ibilbide guztian zehar. Antolatzaileek adierazten dituzten adierazpenak bete beharko dituzte taldeek. Antolatzaileak behar bezala akreditatuta egongo dira.

Desfilearen amaieran talde guztiek argazki bat egin beharko dute Untzaga plazako harmailetan. Untzagara ailegatzerako euria egingo balu, argazkia karpan dagoen eszenatokian egingo litzateke.

Argazkia ateratzeko txanda banatutako zenbakiak adierazten du. Behin argazkia aterata amaitutzat emango da desfilea.

Zortzigarrena. Balorazio irizpideak.

Disfrazak taldekideek eginak izatea baloratuko da, eta baita instrumentu, tresna edota tramankuluek aukeratutako gaiarekin erlazio zuzena izatea ere.

Aukeratutako gaiarekin zerikusi zuzena duten dantza, abesti, koreografia, musika zein bestelakoak desfilearen ibilbidean zehar burutzea ere baloratuko da.

Bederatzigarrena. Desfilea bertan behera gelditzea

Adierazita azaltzen den desfile-data bakarra izango da. Arrazoi klimatologikoengatik edo ezbeharren batengatik antolatzaileek desfilea bertan behera utzi ahal izango dute. Desfilea bertan behera gelditzen bada, ez da inola ere beste data batera aldatuko.

Hamargarrena. Informazioa.

Arau hauen inguruan edozein zalantza izanez gero, helbide honetan izango duzue argitzeko aukera:

Portalea. Kultura saila. 943 708 435 telefonoan edo kultura@eibar.eus helbide elektronikoan.

Hamaikagarrena. Epaimahaikideen erabakia eta saria.

Lehenengo saria irabazten dutenek Eibarko XL Antzerki Jardunaldietan izango den antzezlan baterako sarrerak jasoko dituzte. Antzezlan Eibarko Udaleko kultura sailak aukeratuko du.

Epaimahaikideen erabakia 2017ko otsailaren 25ean arratsaldeko 7etan jakinaraziko da Untzaga plazako karpan izango den haurrentzako berbenan.

Sari bakarra egongo da.

Irabazleek eszenatokian jasoko dute saria.

Hamabigarrena. Oinarrien onarpena.

Lehiaketa honetan izena emateak bai oinarriak bai epaimahaikideen erabakia onartzea suposatzen du.